

## Bergarako Olaso Dorrea Sorrerakundearen ondare bibliografiko eta artxibistikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da

Euskaltzaindiak eta Bergarako Olaso Dorrea Sorrerakundeak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute gaur Bergarako Olaso Dorrean, hots, Sorrerakundearen egoitzan. Hitzarmen horri esker, Olaso Dorrea Sorrerakundearena den ondare bibliografiko eta artxibistikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da, hots, George Lacomberen Biblioteka eta Olaso Dorrea Sorrerakundearen Artxibo Historikoaren XX. mendeko atala, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza emaztearen familiaren ondareak barne, Euskaltzaindian gordeko da. Europa Press Donostia Horrela, Leizarragaren "Testamentu Berria"-ren bi ale; Bizkaierazko katixima; Voltoireren "Tresora"; Poza Lizentziatuaren "De la antigua lengua"; André Favynen "Histoire de Navarre"; Pierre de L'ancreren "Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons"; Axularren "Guero"; Oihenarten "Notitia utriusque Vasconiae"; Xahoren "Voyage en Navarre" bezalako liburuak gehi beste asko Euskaltzaindian gordeko dira, Akademiaren Azkue Bibliotekan.

Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du hitzarmena, eta Olaso Dorrearen Sorrerakundearenean, Jose Luis Elkoro ordezkariak.

Olaso Dorrea Sorrerakundearena den George Lacombe zenaren ondare bibliografikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da. Hamar urtez izango da bertan eta Akademiak bere gain hartuko du ondare horren kontserbazioa eta katalogazioa. Katalogazioa jada eginda dauka Euskaltzaindiak. Olaso Dorrea Sorrerakundearen Artxibo Historikoaren XX. mendeko atala Euskaltzaindiaren egoitzan taxutu eta ordenatuko da. Lan hori hiru urteko epean egingo du Akademiak.

Maria Dolores, Isidro eta Telesforo Monzonek eta Maria Josefa Ganuzak sortu zuten Olaso Dorrea Sorrerakundea. Gaur egun, hainbat kidek osatzen dute Fundazioa, horien artean Euskaltzaindia bera delarik.

### ASPALDIKO ELKARLANA

Olaso Dorrea Sorreakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana aspaldikoa da. Hasiera-hasieratik ondare dokumentalari eta bibliografikoari lotuta egon den harreman hori 1980ko hamarkadan hasi zen eta denbora horretan zehar berebiziko garrantzia izan du Akademiaren Azkue Bibliotekak, batez ere Jose Antonio Arana, Josune Olabarria eta Pruden Gartziak.

1993an, Euskaltzaindia eta Sorrerakundea elkarlanean hasi ziren eta Donibane Lohizunen Lacomberen Ondarearen lehen taxuketa egiteari ekin zion Euskaltzaindiak. 1995 eta 1996an, Lacombe Ondarean biblioteka eta artxiboa kudeatu eta Donibane Lohizunetik Bergarara ekarri zen.

Lacombe Ondarearen Artxiboa Bilboko Euskaltzaindikoko egoitzara ekarri zen 1996 eta 1997an, taxutu eta inbentariatzeko. Lan hori burututa, Bergarara itzuli zen Artxiboa eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak zuzenean Irargiren sinatutako hitzarmen baten bidez artxiboa mikrofilmatu zen.

1997an, Lacomberen Artxibo mikrofilmatuaren kopia Euskaltzaindiari eman zitzaion. Artxibo hori egun Bergaran gordetzen da. Urte berean, Jose Antonio Aranak Olasoko Ondarearen Artxibo-II taxutu zuen eta azaleko inbentarioa egin. Gero, Bergarara itzuli zen.

Hurrengo urtean, Euskaltzaindia Olaso Dorrea Sorrerakundearen kide izendatu zuten, eta 2000n, Olasoko Biblioteka taxutu eta inbentariatu zen Bergaran. Urte horretan bertan sinatu zen Lacomberen Biblioteka katalogatzeko eta digitalizatzeko hitzarmena, eta lana Azkue Bibliotekan burutu da.

Gaur bertan bi erakundeen arteko hitzarmen berria sinatu da. Hortaz, Olaso Dorrea Sorrerakundearena den ondare bibliografiko eta artxibistikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da.

### **Liburu aipagarrienak**

- . Leizarraga. Iparraldeko autorearen Testamendu Berriaren bi ale.
- . Joanes Etxeberri. Manual Devozionezkoa, Noelak eta Elizara erabiltzeko liburua.
- . Joanes Haranburu. Debocino escuarra, mirailla eta oracionotegua.
- . Pedro Axular. Guero.
- . Kardinala Richelieu. Instruction du chrestien.
- . Jean Tartas. Arima penitentaren okupazione debotoak.
- . Imitatio Christi. Jesu-Christoren imitacionea.
- . Bernard Gazteluzar. Egia katolikoak.
- . Voltaire. Tresora.
- . Athanase Belapeyre. Katiximalaburra.
- . Francisco Elizalde. Apezandaco doctrina christiana uscaras.
- . Lizantziatua Poza. De la antigua lengua.
- . André Favyn. Histoire de Navarre.
- . Arnaut Oihenart. Notitia utriusque Vasconiae.
- . 'Nafarroa Behereko Foruak eta Kostumak (1611)'.
- . 'Lapurdiko kostuma (1514)'.
- . Henry Faure. De maritima veterum Hispaina.
- . Joseph Augustin Xaho. Voyage en Navarre, Histoire des basques depuis leur établissement dans les Pyrénées eta Philosophie des religions comparées.
- . Pierre Diharce de Bidassouet. Histoire des cantabre ou des premiers colons de toute l ' Europe.
- . Jacques Faget de Baure. Essais historiques sur le Béarn.
- . Pierre de L ' Ancre. Tableau de l ' inconstance des mauvais anges et démons.
- . Antoine Dadin de Hauteserre. Rerum Aquitanicarum libri quinque.
- . Poza, Lizentziatu. De la antigua lengua. Compuesto por el Licenciado Andrés de Poça.
- . Baltasar Etxabe (1548-1620) Discursos de la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas.